

Proiektuaren deskribapena: Zure eguneroko beharrak biltzen dituen txartela sortu dugu, hau da, etxeko eta kotxeko giltzak, dokumentazioa, diru txartela, garraio publikoa hartzeko txartela etab.

Idea hau burutzeko aldaketa txiki batzuk egin beharko ditugu kotxean eta etxean. Etxean, sarraila aldatuko dugu hoteletan dauden sentso bezalakoengatik eta kotxeetako heldulekuan sentso barneratu bat instalatuko dugu txartela hurbiltzean irekitzeko.

Dokumentazioari begira, alde batetik, polizia txartel hau detektatzeko makina bat izango du eta, beste alde batetik, identifikazio zenbaki bat izango du.

Produktu honen segurtasunari begira, ez da ezer gertatzen galtzen baduzu, erabili ahal izateko zure hatz aztarna izan behar duelako.